

Vietnamititik Artizarraren orbitara

Egun on. Euskara Batuaren Helduaroa jardunaldia antolatu du UEUk 46. Udako Ikastaroak irekierako ekitaldi gisa. Aurrenik eta behin, eskerrik asko etorritako guztiei eta mila esker UEUko lankide arduratsuei antolakuntzagatik.

Politika-askatasuna ez da hizkuntza-pizkundearen ama, hizkuntza-pizkundearen alaba baizik. Jose Luis Alvarez Enparantza irakasleak idatzi zuen. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamargarren urtean, Txillardegik Baionan zegoen diktaduratik ihesean. Diktadorea bost urte beranduago hil zen. Arrazoi zuen Txillardegik, hizkuntza-pizkundera politika-askatasuna baino lehenago ekarri zuten-eta. Orain bi mila eta hemezortzigarrenean, berriz, oinarrizko askatasun printzipioak kolokan daudenean hizkuntza-pizkundera makaldu zaigu. Bitxia da.

Txillardegi aipatu dut eta, berarekin batera, euskararen batasuna abian jarri zuen gizaldia aipatu nahi dut. Jose Luis Alvarez Enparantza euskararen estandarizazioaren ingeniaria izan zen, batasunaren eragile printzipala. Euskara Batua, ordea, ez da inorena, ezta inongoa, ez da inorena eta, aldi berean, guztiona da, Euskal Herri osokoa, alegia. Abesten ikasi genuen *euskara dela euskaldun egiten gaituena* eta oraindik ikasten ari gara hizkuntza normalizazioak herri egiten gaituela, kostata. Hizkuntza eredu estandarrik gabe ez dago, euskaldunentzat, ez hezkuntzarik, ez hedabiderik, ez administrazio publikorik ezta unibertsitaterik. *Estatuarekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe ziur ezetz.* Hori ere, Txillardegiri ikasi genion.

Ez dakit bildutakoren artean bateren batek ezagutu zuen *vietnamita*. *Vietnamita* etxean egindako lanabesa zen, multikopiak egiteko tramankuluari *vietnamita* esaten genion. Ohola, egurrezko markoa, markoari lotuta oihal fin-fina ongi josita eta eta tenkatua. Oihalari klizea eransten zitzaion. Klizea paper berezia da idazmakina zaharretan erabiltzen zen, horrela eskuzko idazmakinetan letrak zulatzen ziren klizean. Gero, oihalari tinta eman eta, azkenik, arrabolari eragin kopiak banan bana egiteko.

Horrelako traste batean inprimaturik ezagutu nuen nik *Euskal Herriaren Historia* hirurehun orrialdeko liburua. Ez dakit non eta nork egina. Baina ez zuen meritu makala. Urte haietan debekatuta zegoen edozein gauza idaztea eta zigortuta zegoen,

bereziki, idazki horiek zabaltzea. Propaganda ilegala esaten zioten. Urte horietan abiatu zen Euskara Batua eta urte bertsuetan sortu zen Udako Euskal Unibertsitatea Uztaritzen. Dagoeneko, ohitzen ari gara Euskara Batuarekin eta jardunaldian gogorarazi nahi genuke hizkuntzaren estandarizazioa, euskararen batasuna, gertaera itzela dela, harrigarria. Ikuspegi linguistikotik Euskal Herriak ezagutu duen fenomenorik garrantzitsuen da.

Udako Euskal Unibertsitateak bere berrogeita hamaseigarreneko udako ikastaroen emanaldi antolatu du, berrogeita sei urte! Jardunaldi honi izenburu jarri diogu Euskara Batuaren helduaroa. Alde batetik UEUk batasunaren ospakizunetan bere ekarpena egin nahi duelako. Baina ez bakarri ospatu, ez bakarrik atzera begira ipini eta geure buruari esan zer ausartak izan garen eta zein ondo egin dugun! Jardunaldi hau antolatu dugu, batez ere, gogoeta egiteko, nola gauden hausnartzeko eta, geroari begira, zer egin behar dugun hobetzeko.

Atzera begira jarrita, aurton betetzen dira ehun urte Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zirela. Euskaltzaindiko Orotariko Hiztegiak esaten du Eusko Ikaskuntzaren goiburua “Asmoz eta Jakitez” Aulestiko baserri bateko armarritik kopiatu zutela: *Bekoak goiko eskondu leidi / Ta txikiak andia benzi leide / Asmuz eta jakitez.*¹ Badaezpada ere, erakundeak gaur egun *asmoz eta jakitez* besterik ez dute esaten *ezkondu eta bentzutu* aipatu gabe. Horri esaten zaio garaian garaikoari egokitzea. Bikain.

Euskaltzaindiak berak *Ekin eta jarrai* hartu zuen erakundearen goiburua. Ea gero Andres Urrutiak azaltzen digun goiburua horrena nondik datorren. Gerora, azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak UPV/EHUk Iparragirre olerkariari mailegatu zion *eman ta zabal zazu* unibertsitate publikoko goiburua. Udako Euskal Unibertsitateak, UEUk ostera, ez du goibururik. Nago, UEUk goiburua beharko lukeela. Ez diogu Euskaltzaindiari ostuko, bateren batek lardaskan ibilita gaizki ulertuko luke *UEU Ekin eta jarrai*. Hobeto ez. *Asmoz eta jakitez* esamoldeak, bere aldetik, azken urteotan goiburua baino fundazioaren itxura hartu du. Hori ez zaio komeni UEUri. EHU/UPVren goiburua, atzenik, *eman ta zabal zazu* kakofonia errezetarako aukera ematen du, zabal/zapal horrek, errima errazegia du eta, gainera, ez dago eredu estandarren idatzita.

¹ http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=&lang=eu&sarrera=asmo&xeh=35

Hala ere, Eusko Ikaskuntzarena (*Asmoz eta jakitez*), Euskaltzaindiarena (*Ekin eta jarrai*) eta UPV/EHUrena (*Eman ta zabal zazu*), hiruak ikusita, UEUren goiburu proposatuko nuke: *hitzak ari bira, dugun egina*. Agian, horren gainean zerbait esan diezaguke Jose Ramon Etxebarria irakasleak.

Unibertsitatearentzat, UEUrentzat ere, hizkuntza eredu estandarra ezinbestekoa da. Ez dago imajinatzerik jarduera akademikoa eta are gutxiago ikerkuntza hizkuntza eredu normalizaturik gabe. Gainera, Euskara Batua eta UEU garaikideak dira, 1968koa bat eta 1973koa bestea. Senide bereko lehengusinak izango bailiran hazi dira UEU eta Euskara Batua, bata besteari elkarri begira eta elkarri ikasten. UEU ezinezkoa izan zatekeen hizkuntza estandarrik gabe eta, trukean UEUk estandarizazio prozesua lagundu du euskararen hiztun elkarte eratzten, sendotzen eta zabaltzen. Artez edo moldez UEU izan da ezinbesteko erreferentzia komunitate akademiko zientifiko euskaldunean.

Atomizazio dialektaletik batasunaren unibertsora gatoz, *vietnamititik* komunikazio teknologietan kapsulaturik Artizarraren orbitara goaz. Gu gara, zuek zarete euskararen hiztun elkarte akademikoa, bihar etziko euskararen biziberritzea egingo duzuen.

UEU bere sorreratik bertatik lerratu zen Euskara Batuarekin, bere argitalpen eta jarduera guztiak hizkuntza estandarren eremuan egin izan ditu. Ez da gutxi. *Hitza ari bira, dugun egina*.

[Euskal Herrian, 2018ko ekainaren 19an](#)